

Bero-beroan

Jatorrizko hizkuntzen lege proiektua Kolonbian

KULTURA MINISTERIOA eta 30 talde etnikotako buruzagiak elkarrekin ari dira lege proiektua prestatzen. Kolonbiako jatorrizko hizkuntzak babestea eta sustatzea izango litzateke legearen asmoa.

1886ko Konstituzio Politikoaren arabera, espainiera zen Errepublikaren hizkuntza ofiziala, gainerakoak, eskolan bederen, debekatuta zuden. 1991ko Konstituzioaren arabera, espainiera da Kolonbiako Errepublikako hizkuntza ofiziala, eta lurralde bakoitzean bertako talde

etnikoaren hizkuntza ere ofizial da. Espainieraz gain, 65 amerikar jatorrizko hizkuntza daude Kolonbian, afrikar jatorrikoen oinordekoen bi kreolera, eta ijitoen herriak hitz egiten duen romani hizkuntza.

Seaskak hitzarmena egin du Hezkundearekin

POZIK DA Seaska Frantziako Hezkunde Nazionalarekin lortu duen hitzarmena dela-eta. Ondokoak dira lotutako gaiak: batetik, hiru urtean lehen mailarako hamaika irakasle gehiago emango dizkio Hezkundeak Seaskari. Bestetik, juridikoki eskola gisa aitortuak direnak ikasto-

la moduan aitortzea lortu dute. Bestetik, ikastola berriak irekitzeko prozedura abian jartzen du akordioak, eta azkenik, frantsesarekin eta matematikarekin egin den bezala, irakaskuntza eredu desberdinetan euskararen kalitatea neurtzeko tresna izango da.

Igandean, Herri Urratsen hasieran, honela mintzatu zen Paxkal Indo Seaskako lehendakaria: "Negoziazioak bururatu ditugu. Ez da erraza izan. Aturritik gora bizi diren jende horiek ez dira gu bezalakoak eta gauzak mila aldiz azaldu behar zaizkie konpreni ditzaten eta hala ere ez naiz segur konprenitu duten".



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

AHTren kopuru ekonomikoak

Joan den asteburuan AHT Geldituk deitutako manifestazioa egin da Iruñean, AHT eraikitzearen kontra eta Euskal Herrian beharrezkoak diren azpiegituren inguruko eztabaida sozial baten alde. Manifestazio hori herri ekimen oso originalaren ondotik etorri da. Ekimenak balio izan du mahai gainean jartzeko AHT eraikitzeak ekarriko dituen kopuru ekonomiko handiak. AHT Geldituren eskutik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako postontzietan gutun-dokumentua banatu dute, ustez Eusko Jaurlaritzak bidalita. Gutun horrek, koordinadorak idatzia, zergadun bakoitzarentzat AHTren obrek zer kostu izango duten azaltzen du. Zehazki, 4.895 euro lagun bakoitzeko. Koordinadorak ziurtatu zuen nafar bakoitzari AHT 4.750 euro kostako litzaiokeela.

Edozein izanda ere batzuen eta besteen balorazioa, herri koordinadorearen ekimena ez da inorentzat oharkabea pasa. Eta, agian, bere ikuspuntua ezagutarazteko marketin eta propagandarako aktiborik hoberena izan da. Gasteizko Gobernuak eta alderdi politiko gehienek, berriz ere beren nagusikeria eta inkoherentzia erakutsi dute herri kontsultarekiko. Erantzun bakarra, antzeko kasuetan bezala, errepresiboa izan da: herri ekimena judizialki salatzea. Inolaz ere ez die kontra egin koordinadorak AHTren proiektuari atxiki dizkion kopuru ekonomikoei eta batzuei ekarriko dizkien etekinei. AHT Geldituk adierazitako zifra handi horiek benetakoak dira edo ez? Herri ekimena epaitegian salatzea beren eskubidea da. Zergadunen eskubidea da, baita ere, AHTren kostu erreala ezagutzea.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Angel Errok *Garan* esanak:

"Gaur egun, euskaraz ere bai, edo euskaraz bereziki, irakurtzen dudana testu askotan, idazleak irakurlea ergeltzat hartzen du. Irakurlearengana hurbildu nahian (horixe baita azkenaldiko tema), haren gainetik kokatu eta gurasokeria nabarmenaz aritzen zaio, argumentuak birrin-birrin eginda, irakurleari kontrako ezta-ritik ezer joan ez dakion. Ni, irakurle gisa, askotan iraindua sentitu izan naiz".

ZUZENKETA-OHARRA

2.183. aleko Jean Ybarnegaray-ri buruzko artikuluan Nikolas Ormaetxea *Orixeren* "Idorreria" poema *Euskaldunak* lanean argitaratu zela jarri genuen erredakzio-ko akats bat medio (8. orrialdea). Jakina da liburu horretan ez zela argitaratu *Orixeren* poema hori.

Espanian “lotua, eta ondo lotua”

JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

ESPAINIAKO gainerako lurraldeekiko homologazio ahalegina oso agerian izan da Patxi Lopez lehendakariaren kargu hartze ekitaldi eta hitzaldietan. Popular eta sozialisten akordioaren lehen helburua, beraz, erdietsi da jada. Jose Antonio Pastorrek laburtu zuen ahalegin guztia modu txukun eta adierazgarrian, trantsizioa orain ixten zela azpimarratu zuen esaldi esanguratsu eta eztabaidatuarekin.

Sinbologiak politikagintzan duen garrantzia berriz ere argi geratu zen joan den astean eta nabarmendutako sinboloek ondo kokatzen dute PSEren eta PPren ahalegina: Espainiako Konstituzioa, Espainiako agintari autonomikoak eta armadako agintariak. Gernikako Estatutua ere bai, jakina, baina aipatutako osagaiekin ondo hornitu eta babestuta. Ez dira oharkapean iragan Patxi Lopezen keinu euskaltzaleak, bai bere hitzaldian eta baita bestelako zipriztin poetikoetan, baina jasandako espainiartasun zaparradaren erdian, horixe dira gaur gaurkoz, zipriztinak.

Eta orain bai, orain egunerokoaren ueña dator eta Lopezen gobernuak hor erakutsi beharko du gerri malgutasunez nola dabilen, beharko du eta. Jeltzaleek iragarri diote jada akordio

orokorrik ez dela izango, baina akordio zehatzetara zabalik direla, hori ondorioztatzen da behintzat bere buruzagien adierazpenetatik.

Gatazka politikoari ausardiaz heltzeko asmoen atzean zer dagoen ere argitu beharko du lehenago edo geroago Lopez lehendakariak. Euskal politikan ari den edonork jakin badaki egoera politiko hau ez dela normala, bakoitzak jarriko dizkio gura dituen ezaugarri eta adjektiboak anormaltasun horri, baina korapiloa ez dela berez askatuko bistan da. Loiolako akordioak duela bizpahiru urteko kontuak dira, ez amaitu berri ei den trantsizioaren hasierakoak. Mozorroak mozorro, herri honen eta bere herritarren erronka kolektibo handiena horretan datza, gatazka bortitzaren korapilo horren askatzean.

EAJ-REKIN zer gertatuko den da euskal politikan orain dagoen zalan-

tza nagusietakoa. Juan Jose Ibarretxeren ondoren zer? Lidergoa berregin, oposizioa gidatu, norabide politikoa finkatu... eta Eusko Jaurilaritzako lehendakaritza berreskuratu kosta ala kosta. Horra ibilbide orria. Ibarretxek hutsune handia utzi du oinezko jeltzaleen artean, baina bide berriak urratzeko aukerak ere bai zuzendaritzan. Lerro nagusiak marraztuta daude, espainiar konstituzionalista eta soberanista zatikatuen tartea da berea, hori da orain arte arrakastaz kudeatu duena eta hor arituko da aurrera begira ere; alde bietara so, baina arreta bereziki Ajuria Enera bideratuz, aginte makila hor izateaz gain, gaur gaurkoz etorkizuneko balizko aliatuak ere hor gertuago dituelako.

ETA IBARRETXEK zer? Bere etsipen handienetakoa izango da politika gatazka bideratu barik utzi izana seguruenerik, hala adierazi izan du sarri iraganean. Lastima litzateke metatutako ezagutza eta esperientzia enpresa pribatuak mokadu bakarren irenstea. Oraindik badu hainbat arantza ateratzeko modurik: bakegintzak maiatzeko ura moduan hartuko luke bera moduko pertsonen ekarpen konprometitua.



PREST!

UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

izena emateko epea zabalik
ekainaren 19ra arte

www.mondragon.edu/prest